

Zuhaitz zaharrenaren heriotza

Josu Galdos Kazabon

Desclée De Brouwer

AURKIBIDEA

PERU ETA ZUHAITZA

9

BI BIDE

15

ARTZAINA

19

AMONAREN BEGIAK

25

JAKIMURO ETA TXIMINOA

33

GAU HARTAN

43

ESPALOIAN

47

BIDAIA

53

MUNDUKO ZUHAITZ ZAHARRENAREN HERIOTZA

65

P ERU ETA ZUHAITZA



Peruk, behin, lo-kuluxka bat egin zuen baso batean, zuhaitz baten itzalean, eta bera konturatu gabe, ezkur bat bere buru gainera erori zen. Peruk ile kizkurra zuenez, hantxe gelditu zen ezkurra.

Peruk ez zuen ez bere burua sarritan garbitzen, eta ezkurak bertan pasa zuen negua, goxo-goxo.

Peruren buruan bazegoen nahiko elikagai eta bitamina, eta ura ere bai, euria egiten zuenean. Eta horrela, udaberria etorri zen, eta gure ezkurra esnatzen hasi zen, eta Peruren garunean zainak botatzen hasi zen.

Bi urte igaro ziren, eta egun batean, Patxik, Peruren lagun batek, zera esan zion Peruri:

Zuhaitz zaharrenaren heriotza

—Aizu! Buru gainean zuhaitz bat daukazu!

Peruk, bitan pentsatu gabe, zuhaitza bere buru gainetik atera zuen.

—Ederki errotuta zegoen! —esan zuen Peruk.

Gero, Peruk, zuhaitzari begiratu eta esan zion:

—Mendira eramango zaitut.

Horrela, Peruk, zuhaitza baso batean landatu zuen, han ongi biziko zelakoan. Peru oso ongi sentitzen zen, zuhaitza burutik kendu zuenetik, bere buruak beste bat ematen zuen.

Zuhaitza berriz, pixka bat hazitakoan, konturatu zen ez zela beste zuhaitzak bezalakoa, beti kezkatuta bai zegoen:

—Giza garun gehiegi zurrupatu dut —pentsatzen zuen.

Horrela, gure zuhaitza, ez zen oso zoriontsua, eguzkia egiten zuenean, ez zen ongi sentitzen: